

ADIKZIOEI BURUZKO IKERKETA PROIEKTUEN DEIALDIA 2018

Xedea:

Irabazi asmorik gabeko erakunde publiko edo pribatuek adikzioei buruzko ikerketa proiektuak garatzeko 2018rako diru-laguntzak, norgehiagoka erregimenean.

Diruz lagundutako proiektuak:

Laguntza hauen bitartez finantzatutako ikerketa proiektuak aurkez daitezke bat, bi edo hiru urteko proiektu gisa.

Ondorengo ildoak lehenetsiko dira (besteak beste):

- 1.- Banaka edo elkartuta alkohola eta haxixa gehiegi kontsumitzearen inguruko prebentzio selektiboa eta preskribatua, batez ere adin gutxikoei zuzendua.
- 2.- Arrisku jokaerak, adikzioak eta generoa.
- 3.- Adikzioak, generoa eta indarkeria.
- 4.- Gizarteratu eta lan munduratzeko estrategiak.
- 5.- Haxix kontsumoaren ondorio ekonomikoak.
- 6.- Adin helduko kontsumitzaileen arretaren beharrianak.
- 7.- Droga kontsumoaren joeren aldaketei lotzen diren determinanteak, arreta berezia jarritz adingabeei eta genero ikuspegiari.
- 8.- Substantziarik gabeko adikzioak.
- 9.- DGPNSDren komunikazio eta dibulgazio ekintzen ebaluazioa.

Pertsona Ikertzaile Nagusiaren (PINaren) eta ikertaldearen betekizunak:

- **PINa:** Erakunde eskatzailearekin nork bere funtzionario, estatutu edo kontratu lotura formalizatuta edukitzea, gutxienez proiektu eskaera egiten denetik hura amaitu arte luzatzen den epean, onartzen baldin bada. Ikertzaile nagusi batek proiektu bakar batean parte hartu ahal izango du PIN gisa.
- **Gainerako lantaldea:** Deialdian zehaztutako I+G zentroekin funtzionario, estatutu edo kontratu lotura formalizatuta edukitzea.

Hala ikertzaile nagusiak, nola lantaldeko gainerako kideek aldi berean parte hartu ahal izango

dute bakarrik deialdi honetako edo indarrean diren Drogei buruzko Plan Nazionalerako Gobernu Ordezkaritzaren aurreko beste deialdietako bi ikerketa proiektutan.

Eskaerak aurkezteko modua eta epea:

Interesatuak SIGES plataformaren bitartez aurkeztuko dituzte eskaerak dagozkion eranskinak betez, betiere modu elektronikoan:

<http://www.pnsd.msssi.gob.es/delegacionGobiernoPNSD/convocatoriaSubvenciones/ongs/proyecInvestig.htm>

Eskaera elektronikoa posta elektronikoa bidez bidaliko da ondorengo agiriekin pndinvestigacion@mscbs.es helbidera:

- 1) I. eranskina: **eskaera**, eskaera eremu eta lehentasun batean kokatu behar da, Aginduko 5. artikuluan adierazi bezala.
- 2) II. eranskina: **Ikerketa proiektua**, Worden aurkeztu behar da nahitaez.
- 3) Ikertzaile nagusiaren eta ikertaldeko kide bakoitzaren curriculumak, bekadunak ere tartean.
- 4) Ikerketako Batzorde Etikoaren txostena, hala dagokionean.
- 5) VI. Eranskina: Proiektua finantzatzen laguntzen edo lagundu duten beste diru-sarrera edo laguntzen zerrenda.

Halaber, hala badagokio, ondorengo agiri bereziak gehituko dira:

- a) Proiektuan, pertsona bekadunen finantzaketa eskaera sartzen bada, II. eranskineko dagokion atalean prestakuntza programa sartuko da.
- b) Estatu Batuetako prestakuntza egonaldiako finantzaketa eskatzen bada, Abusuko Drogei buruzko Institutu Nazionalak (NIDAK) babestuta, ondorengo agiriak gehitu behar dira:
 - Erakunde eskatzailearen legezko ordezkararen ziurtagiria, bertan adieraziz erakunde horrekin egonaldiko onuradunak duen lan lotura eta Erabakiko 9.7 artikuluan eskatutako baldintzak betetzen direlako konpromisoa.
 - Ikertzaile nagusiaren ziurtagiria, erakunde eskatzailearen legezko ordezkararen oniritziak, prestakuntza egonaldian egiteko programa zehazten duena eta ondorengoak bildu behar dituena:
 - o Helburuen eta horiek betetzeko egin beharreko jardueren deskribapena.
 - o Egonaldiaren denbora (gutxienez 1 hilabete eta gehienez 3 hilabete).
 - o Finantzaketa eskatzen duen ikerketa proiektuarekiko duen egokitzapena/lotura, eta proiektu horretan duen aplikagarritasuna eta eraginaren balorazioa.
 - Deialdi hau argitaratzeko unean Estatu Batuetako Abusuko Drogei buruzko Institutu Nazionalak finantzatutako proiektu batean parte hartzen ari den adikzioen arloko ikertzaile ezagun baten gutuna eta, bertan, Institutu horretako Nazioarteko Programaren Zuzendariaren oniritziak, egonaldiaren onuradunak prestakuntza ekintza egiteko onarpena duela adierazi behar da.
- c) Baldin eta ikertzaile bat, deialdi hau argitaratzeko unean Estatu Batuetako Abusuko Drogei buruzko Institutu Nazionalari (NIDARI) lotutako proiektu batean parte hartzen ari dena, Espainian egon dadin finantzaketa eskatzen bada, ondorengoak gehitu behar dira:

- Ikertzaile nagusiaren ziurtagiria, erakunde eskatzailearen legezko ordezkariaren oniritziaz, egonaldian egiteko programa zehazten duena eta ondorengoak bildu behar dituena:
 - o Helburuen eta horiek betetzeko egin beharreko jardueren deskribapena.
 - o Egonaldiaren denbora (gehienez 3 hilabete).
 - o Finantzaketa eskatzen duen ikerketa proiektuarekiko duen egokitzapena/lotura eta proiektu horretan duen aplikagarritasuna eta eraginaren balorazioa.
 - Halaber, proiektu horri lotutako egonaldiko ikertzaile onuradunaren onarpen gutuna gehituko da, bere partaidetza onartuz, eta NIDako Nazioarteko Programako Zuzendariaren oniritzia izan behar du adierazita.
- d) Hala balegokio, Ikerketa Klinikoko Batzorde Etikoaren edo Osasun, Kontsumo eta Gizarte Ongizate Ministerioko Medikamendu eta Produktu Sanitarioen Espainiako Agentziaren Txostena.

Aurkezpenak eskatzeko epea 2018ko urriaren 1ean amaitzen da.

Deialdi honetara ezingo dira aurkeztu Drogei buruzko Plan Nazionalerako Gobernu Ordezkaritzak finantzatuta indarrean diren proiektuak dituzten ikertaldeak, tartean direla azken urtea deialdi hau argitaratzearen urtean izan duten proiektuak.

OHAR GARRANTZITSUA:

Ikerketaren Arloko Errektoreordetzak PINa UPV/EHUrekin uztartu behar du hark Ministerioaren aplikazioan alta hartutakoan eta, era horretan, aplikazio horretako eremu guztiak ikusteko modua izango du. Bukatzeko, Ikerketaren Arloko Errektoreordetzak eskaera erregistratuko du.

Aplikazioan eskaera bukatu eta Ikerketaren Arloko Errektoreordetzari eskaera itxi dela jakinarazteko barne epea IRAILAK 27, OSTEGUNA da.

UPV/EHUren datuak:

Eskaerak betetzeko behar diren Erakundearen (UPV/EHUren) datuak hauek dira:

- **Erakundea:** Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea
- **IFK:** Q4818001B
- **Egoitza Soziala:** Sarriena auzoa, z/g
- **Posta Kodea:** 48940
- **Herria:** Leioa (Bizkaia)
- **Legezko Ordezkaria:** Jose Luis Martín González
- **NAN:** 78865001W
- **Harremanetarako posta elektronikoa:** convocatorias.dgi@ehu.eus
- **Harremanetarako telefonoa:** 94 601 80 08

Harremanetarako:

IKERKETAREN ERREKTOREORDETZA	ARLOKO	OSASUN, GIZARTE ZERBITZU ETA BERDINTASUN MINISTERIOA
94 601 80 08 convocatorias.dgi@ehu.eus		91 822 60 70 pndinvestigacion@mssi.es